



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/10/24

Batzar Nagusiek eskaria egin deutsie Sustapen Ministerioari, Bilbo eta Getxo arteko bidegorria egin edo finantzau daian

Bizkaiko Batzar Nagusiek EH Bilduk aurkeztutako arauz besteko proposamen bat onetsi dabe gaur Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen batzordean, Sustapen Ministerioak “ahalik eta arinen” Bilbo eta Getxo itsasadarreko BI-711 errepidetik lotuko dituan txirrindularientzako bidea egin daian. Sustapen Ministerioak Bizkaiko Batzarren eskaria onesten ez badau, bigarren aukera moduan, itsasadarreko errepideko lurak ikututako udalen esku itzi daizala eskatzen jako, horreekaz aurretik akordioa lortu ostean, aitaturako azpiegiturea gauzatzeko ekarpen ekonomikoa barne. Azkenean, proposamenak EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko botoa izan dau. Talde Mistoa abstenidu egin da eta PPK kontrako botoa emon dau.

Akordioa, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben zuzenketa-eskea koalizino abertzaleak onetsi eta gero lortu da. Hasierako testuak errepideko lurak Bizkaiko Foru Aldundiaren esku lagatzea eskatzen eban, udalerrien esku itzi beharrean. Hiru taldeak bat etorri dira esatean “pelotea Sustapen Ministerioaren teilatuan dagola”, eta erakunde hori dala Bizkaiko Batzarretatik heltzen jakon eskaria onesten dauen ala ez balorau behar dauena. Dana dala, EH Bildutik ez dabe bazterten joan dan maiatzaren 11n Portuko Agintaritzak Bizkaiko Batzar Nagusietan aurkeztu ebazan lau alternatibetako baten edo bat baino gehiagoren nahasketea izan daitekenaren finantzaketan Aldundiak parte hartzea.

Zigor Isuskiza EH Bilduko batzordekideak gogoratu arazo dauenez, egun haretan Asier Atutxa Bilboko portuko presidenteak bidegorri hori eregiteko eskumena ez zala Agintaritzarena esan eban, lurraren jaubea bera dan arren, Sustapen Ministerioarena baino, eta Portuak emon eutsala hasierea BI-711 errepideak hartzen dituan lurak udalei lagateko prozedureari. Getxok eta Bilbok erriberako errepidearen 43 metroren eta 833 metroren lagapena onetsi dabe, hurrenez hurren. Beste udalerrri biak, Leioak -1.724 m- eta Erandioak -3.552 m- ez dabe lagapena onetsi. EH Bilduren eretxiz, lagapen horregaz, Sustapen Ministerioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak txirrindularientzako bidearen eraikuntza euren gain hartu beharra saihesten ari da Portuko Agintaritzea.

Irene Edesa jeltzaleak guzurtau egin dau zuzenketa eskearen helburua pelotea udalen esku iztea danik, udalentsat “kargea ez izatea” bilatzen dau. Ministerioak ekarpen ekonomikoa egin daian eskatzea, “bidegorria eregitea errazteko formula hoberena” da, bere eretxiz. Foru Gobernu eusten daben talde biak -EAJ-PNV eta PSE-EE-, bidegorria eregitearen alde agertu dira, baina lehenago lurren titulartasuna argituz, eta ikututako udalen eretxia ezagutuz.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak uste dauenez, proiektua gauzatzeko eskatu aurretik alternatibea aukeratu beharko litzateke, dagozan lau aukeren artean “milioi askoko aldeak” dagozalako.

Asier Atutxa Bilboko Portuko Agintaritzako presidenteak lau alternatiba aurkeztu ebazan Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen batzordean, itsasadarragaz paraleloan doan eta Getxo, Leioa, Erandio eta Bilbo hartzen dituan errepideko 6,1 kilometroetan bidegorri bat



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eregiteko. Bidegorriaren kostua, aukera merkeenaren 173.000 euroetatik aukera garestienaren ia 24 milioi eurora doa. Atutzak Batzarretako Taldeei jakinarazo eutsenez, Portuko Agintaritzak ezin eban bere gain hartu planteautako soluzinoen kostua, legeak ez dauelako horretarako aukerarik emoten.

Podemos Bizkaia taldetik, Nuria Atienza ordezkariak neurriaren izaera soziala errenbidikau dau, “txirindulari alkarteen errebindikazinetik sortu dalako”. Bere taldeak bidegorriaren aldeko apustua egiten dau, mobikortasun eredu jasangarriagoa bultzatzeko.

PP izan da ekimenaren kontra agertu dan bakarra, bere eretxiz “ezertarako balio ez dauen” proposamena dalako. Jesús Isasiren eretxiz akatsa da lurren titulartasuna Sustapen Ministerioari eskatzea, jaubea Portuko Agintaritzea danean. Halanda be, gainerako taldeek egin daberen moduan, bat etorri da bidegorria eregitearen beharra onartzean.

ONETSI EZ DIRAN PROPOSAMENAK

Beste alde batetik, batzordeak ez ditu arauz besteko beste proposamen bi onartu. Batean, Podemos Bizkaia taldea bakarrik geratu da Bizkaiko Foru Aldundiari, Franco-Belgaren antxinako trenaren ibilpidetik, Barakaldon zehar, doan bidegorria garbitu eta egokitu daian egin deutsan eskarian. EH Bildu abstenditu egin da, eta EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoak kontrako botoa emon dabe, bidearen titulartasuna ez dala Aldundiarena uste dabelako.

Batzordeak Bizkaiko Talde Popularraren (PP) arauz besteko beste proposamen bat be ez dau onartu. Proposamen horretan eskaria egiten jaken Aldundiari eta Gordexolako eta Artziniegako udalei, udalerrri biak lotzen dituan errepedeko bide-konkorren ordeez semaforoak jarri daiezan. Talde Mistoak aldeko botoa emon dau; EH Bildu eta Podemos Bizkaia abstenidu egin dira; eta EAJ-PNV eta PSE-EE kontra agertu dira. Jeltzaleek eta sozialistek, inplikauta dagozan erakundeek, horreen artean Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu dauen BI-2604 errepedeko bide segurtasun azterlanaren gaineko eretxia emon daiela eskatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
24/10/2017

Las Juntas Generales instan a Fomento a materializar o financiar el "bidegorri" de Bilbao a Getxo

El Parlamento de Bizkaia ha aprobado hoy en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial una proposición no de norma presentada por EH Bildu para que el Ministerio de Fomento materialice “a la mayor brevedad” una vía ciclista que conecte Bilbao y Getxo por la carretera de la ría BI-711. En caso de no aceptar la petición de la Cámara vizcaína, le invitan, como segunda opción, a que ceda los terrenos a los ayuntamientos afectados, previo acuerdo con los mismos, incluyendo una aportación económica para materializar dicha infraestructura. Finalmente, la proposición ha contado con el voto favorable de PNV, EH Bildu, PSE-EE y Podemos Bizkaia. El grupo Mixto se ha abstenido y el PP ha votado en contra.

El acuerdo se ha producido tras la aceptación, por parte de la coalición abertzale, de una enmienda de modificación de PNV y PSE-EE al texto inicial que demandaba la cesión de los terrenos a la Diputación foral de Bizkaia en lugar de a los municipios. Los tres grupos han convenido que “la pelota pase al tejado” del ministerio público que debe ahora valorar si acepta la petición que le llega desde la Cámara vizcaína. En cualquier caso, desde EH Bildu no reniegan de que la institución foral participe en la financiación de una de las cuatro alternativas, o una mezcla de varias, que la Autoridad Portuaria presentó en las Juntas Generales de Bizkaia el pasado 11 de mayo.

Tal y como ha recordado el juntero de EH Bildu Zigor Isuskiza, en aquella ocasión el presidente del puerto bilbaíno, Asier Atutxa, advirtió que la competencia para construir este bidegorri no correspondía a la Autoridad pese a ser dueña del suelo, sino al Ministerio de Fomento y precisó que el Puerto había comenzado con el procedimiento de cesión de los terrenos a los ayuntamientos por los que discurre la carretera BI-711. Getxo y Bilbao han aceptado la cesión de 43 metros y 833 metros de vial ribereño, respectivamente. Los otros dos municipios, el de Leioa -1.724 m- y el de Erandio -3.552 m-, de momento, no han aceptado la cesión. En opinión de EH Bildu, con esta cesión la Autoridad Portuaria está evitando que el Ministerio de Fomento y la Diputación Foral de Bizkaia asuman la construcción de la vía ciclista.

La jeltzale Irene Edesa ha negado que la enmienda presentada obedezca a un intento de pasar la pelota a los ayuntamientos, sino que pretende “evitar que sea una carga” para ellos. Instar a que el Ministerio aporte una cantidad económica, es, a su juicio, “la mejor fórmula para facilitar la construcción del bidegorri”. Desde los dos grupos que apoyan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE-, se han mostrado partidarios de construir el bidegorri, pero aclarando antes la titularidad de los terrenos y conociendo el pronunciamiento de los ayuntamientos afectados.

El representante del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, antes de pedir la materialización del proyecto, cree que se tenía que haber elegido primero la alternativa, ya que entre las cuatro opciones existen “diferencias millonarias”.

El presidente de la Autoridad Portuaria de Bilbao, Asier Atutxa presentó en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial de Juntas Generales del 11 de mayo cuatro alternativas para construir un bidegorri en los 6,1 kilómetros de carretera paralela a la ría, que atraviesa los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

municipios de Getxo, Leioa, Erandio y Bilbao. El coste oscilaría entre los 173.000 euros de la opción más barata y los casi 24 millones de euros de la más cara. Atutxa advirtió a los grupos junteros que la Autoridad Portuaria no podía hacerse cargo del coste de las soluciones planteadas porque la Ley se lo impedía.

Desde Podemos Bizkaia, su representante Nuria Atienza ha reivindicado el carácter social de la medida ya que “nace de la reivindicación de las asociaciones ciclistas”. Su formación apuesta por un bidegorri para impulsar un modelo de movilidad más sostenible.

El PP ha sido el único grupo en rechazar la iniciativa, ya que le parece “un brindis al sol” Para Jesús Isasi es un error pedir la titularidad de los terrenos al Ministerio de Fomento cuando pertenecen a la Autoridad Portuaria. Aún así, ha compartido, como el resto de grupos, la necesidad de construir el bidegorri.

PROPOSICIONES RECHAZADAS

Por otro lado, la comisión ha rechazado dos proposiciones no de norma. En una, Podemos Bizkaia se ha quedado solo defendiendo que la Diputación foral de Bizkaia limpiase y acondicionara el bidegorri que discurre por el trazado del antiguo tren minero de la Franco-Belga a su paso por Barakaldo. EH Bildu se ha abstenido mientras que PNV, PSE-EE, PP y grupo Mixto han votado en contra, ya que consideran que el camino no es de titularidad foral.

Asimismo, la comisión ha desestimado también una proposición no de norma del grupo Popular Vizcaíno (PP) que pedía a la Diputación y a los ayuntamientos de Gordexola y Artziniega sustituir los badenes de la carretera que conecta ambos municipios por semáforos. El grupo Mixto ha votado a favor; EH Bildu y Podemos Bizkaia se han abstenido; y PNV y PSE-EE han votado en contra. Jeltzales y socialistas han pedido que las instituciones implicadas, en las que incluye a la Diputación foral de Alava, se posicionen sobre el estudio de seguridad vial de la carretera BI-2604 presentado por la diputación vizcaína.